


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,6 igo dira 2021eko irailean aurreko hilaren aldean

Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2021eko iraila, 2020ko irailaren aldean), kostuak % 3,8 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,6 igo da 2021eko irailean, aurreko hilaren aldean. Urtetik urterako terminoetan, kostuak % 3,8 igo dira.

Etzegintzaren sektoreko kostuak % 0,4 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 1,5. 2020ko irailarekin alderatuta, prezioak % 3,6 igo dira Etzegintzaren kasuan eta % 4,9 Obra Zibilarenean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean (2021eko abuztua), **lehengaien** kostuak % 0,8 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, egonkor mantendu da (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, lehengaien prezioak % 4,4 egin du gora, eta eskulanarenak, berriz, % 1,9.

Etzegintzaren sektoreak % 0,5eko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan. Obra Zibilean, berriz, igoera % 1,9koa izan da. Urte arteko bilakaeran, Etzegintzako lehengaien kostuak % 4,1 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 5,8.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko iraila

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	109,8	0,6	3,8
Eraikinak	109,8	0,4	3,6
Obra zibila	110,0	1,5	4,9
LEHENGAI	109,7	0,8	4,4
Eraikinak	109,7	0,5	4,1
Obra zibila	109,9	1,9	5,8
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioari dagokionez, 2021eko irailean (2020ko irailaren aldean) hazkunderik handienak izan dituztenak izan dira *Petrolioia fintzea* (% 40,4ko igoera), *Metalurgia* (% 31,9koa) eta *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 9,8koa). Prezioek urte batetik bestera behera egin duten sektore bakarra *Mineral ez-metalezkoena* izan da, non % 0,2ko jaitsiera izan baitute.

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021eko iraila

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-0,2
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	9,8
10 - Petrolioia fintzea	40,4
11 - Industria kimikoa	9,7
13 - Kautxua eta plastikoa	1,0
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	1,8
15 - Metalurgia	31,9
16 - Metalezko artikulak	3,7
17 - Material elektronikoa	8,3
18 - Material elektrikoa	2,7
19 - Makineriaren fabrikazioa	1,9
22 - Altzarigintza	2,8
24 - Energia elektrikoa eta gasa	8,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62